

SORALUZeko MESEDEETAKO ANDRE MARIAREN EGOITZAKO LANGILEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO LAN POLTSA SORTZEKO OINARRIAK

1. XEDEA

Oinarri hauek ezarriko dira erizaintzako laguntzaileak, erizainak, psikologoak, gizarte-langileak, jarduera-begiraleak eta garbiketako langileak ordezkatzeko zerrendak sortu eta aldi baterako kontratuak egiterakoan, oporrak, denboraldi baterako lanerako ezintasuna, ordaindutako baimenak, norberaren arazoetarako lizentziak edota lan pilaketagatik eta, oro har, aldi baterako edozein kontratu egiterakoan.

2. HAUTAGAIEN BALDINTZAK

Gutxienez 16 urte izatea eta erretiratzeko adina ez gainditzea.

Ondorengo titulazioa edukitzea, lanpostuaren arabera:

- Erizaintzako laguntzailea – Erizaintzako zaintza osagarrien teknikari-titulua edo baliokidea
- Erizaina – Erizaintzako gradua edo baliokidea
- Psikologoa – Psikologiako gradua edo baliokidea
- Gizarte langilea – Gizarte laneko gradua edo baliokidea
- Jarduera-begiralea – Animazio soziokulturaleko teknikari-titulua
- Garbiketako langilea – Ez da titulurik behar

3. ESKAERAK

Curriculum Vitae-a bidaliko da, titulazioa eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriekin batera, resmerced@gmail.com helbide elektronikora edota ondorengo posta helbidera:

Mesedeetako Andre Mariaren Egoitza

Atxuri kalea z/g.

20590 Soraluze

Eskaerak aurkezteko **30 egun naturaleko** epea egongo da, deialdi hau prentsan eta Udalaren web orrian argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

4. HAUTAPEN PROZEDURA

Eskaerak aurkezteko epean alegatutako eta behar bezala frogatutako merezimenduen lehiaketa bidez egingo da hautapen prozedura. Oinarri honetan zehaztutako merezimendu-baremoaren arabera bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio.

Deialdia argitaratu den egunera arte lortutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

1. Lan Esperientzia. 5 puntu arte gehienez, honela baloratuz:

- Lanbide esperientzia erizaintzako laguntzaile, erizain, psikologo, gizarte-langile eta jarduera-begirale gisa, izaera publikoa zein pribatua duten zahar egoitzetan. Lanaldi osoarekin egindako hilabete bakoitzeko 0,20 puntu emango dira eta 0,10 puntu lanaldi erdiarekin egindakoengatik. Ez dira baloratuko hilabete baino frakzio laburragoak.
- Lanbide esperientzia garbiketako langile gisa edo antzeko lanpostuetan, izaera publikoa zein pribatua duten zahar egoitzetan. Lanaldi osoarekin egindako hilabete bakoitzeko 0,20 puntu emango dira eta 0,10 puntu lanaldi erdiarekin egindakoengatik. Ez dira baloratuko hilabete baino frakzio laburragoak.

2. Prestakuntza. 2 puntu arte gehienez, honela baloratuz:

- Aintzat hartuko dira lanpostuarekin zuzeneko zerikusia duten prestakuntza edo hobekuntza jarduerak, eta gehienez 2 puntu emango zaizkie: 10 ordu edo gehiago iraun duen ikastaro bakoitzeko 0,20 puntu. Ez dira baloratuko 10 ordutik beherako ikastaro eta abarrekoak.
- Kontuan hartuko dira, bakar-bakarrik, erakunde ofizialen batek behar bezala onartutako zentroetan emandako prestakuntza jarduerak. "On line" ikastaroak ez dira kontuan hartuko, ez bada modu sinesgarrian frogatzen erakunde ofizialen batek onartu dituela.
- Hautagaiek ikastaroaren diploma edo/eta parte hartu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Agiri horietan ikastaroko ikastorduen kopurua agertu beharko da.

Ez dira baloratuko deialdian parte hartzeko ezinbesteko baldintza diren tituluak. Ikastaroak ere ez dira baloratuko, ikastorduen kopurua zehazten ez den kasuetan.

3. Hizkuntza-eskakizuna. Hizkuntza-eskakizunari dagozkion euskara ezaguerak eskabidearekin batera frogatu beharko dira, eta baremo honen arabera baloratuko dira:

3. Hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 1 puntu.

2. Hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 0,75 puntu.

1. Hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea: 0,50 puntu.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ezin duten hautagaiei, elkarrizketa pertsonala egingo zaie, euskararen ezagutza frogatzeko: 0,25 puntu

5. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Epaimahai Kalifikatzailea honela osatuta egongo da: Mahaiburua, hiru mahaikide eta idazkaria, eta Mesedeetako Andre Mariaren zahar egoitzako Patronatuak izendatuko ditu.

Epaimahaiko kide guztiek hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik, honek ezingo baitu botorik eman. Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, mahaiburuaren botoak ebatziko du.

6. BALORAZIOA

Epaimahaiak hautagaiek lortutako puntuazioak batuko ditu eta ordenan jarriko ditu, puntu gehien lortu duenetik gutxien lortu duenera.

Bi edo hautagai gehiagoren arteko berdinketa izanez gero, esperientziaren ataleko puntuaziorik handiena lehenetsiko da, eta berdinketak irauten badu adina lehenetsiko da (gazteenetik hasita).

Behin betiko zerrenda Egoitzako eta Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratuko da. Hautagaiek hamabost eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

7. FUNTZIONAMENDUA

Lan poltsako pertsoneri aldi baterako kontratuak egingo zaizkie, egoitzaren plantillako langile finkoak ordezkatzeko, hauen oporrak, denboraldi baterako lanerako ezintasuna, ordaindutako baimenak, norberaren arazoetarako lizentziak edota lan pilaketa kasuetan eta, oro har, aldi baterako edozein kontratu egiterakoan.

Lanpostu bakoitzean puntu gehien lortu dituen pertsonari deituko zaio lehendabizi (horretarako harremanetarako telefono zenbaki bat utzi beharko da eta, ahal izanez gero, mugikor zenbakia eta helbide elektronikoa ere bai).

8. ESKAINTZARI UKO EGITEA

Hautagaiak eskainitako lanpostuari uko egiten badio, horretarako arrazoirik azaldu gabe, lan poltsako azken tokira pasako da. Bigarren aldiz ere gauza bera gertatuz gero, lan poltsatik atera egingo da.

Lanpostuari uko egiten bazaio bidezko arrazoiak adieraziz, horren frogagiriak aurkeztu beharko dira abisua jaso eta ondorengo **5 egun naturaleko** epean. Lanpostuari uko egiteko justifikatutako arrazoitzat hartuko dira:

- Lanean egotea
- Lanpostuarekin zerikusia duten ikasketak egiten egotea
- Gaixo egotea
- Gaixo dagoen senide bat zaintzen egotea
- Mediku kontsultetara, tratamenduetara eta azterketetara joan beharra izatea

Justifikazioa aurkezten den kasuetan, zerrendako postu bera mantenduko da.

Pertsona bati aurea hartzen bazaio, honek justifikatutako arrazoiak azalduko, kontratua luzatzerik balitz, langile bera mantenduko da lanpostuan zerbitzuaren funtzionamendu onaren mesedetan.


Aukeratutako pertsonari hiru aldiz deituko zaio egunean zehar, berak emandako telefonoetara. Erantzungo ez balu, mezu bat bidaliko zaio 24 ordu baino lehen egoitzarekin harremanetan jar dadila eskatuz eta, horrela egin ezean, zerrendako hurrengo pertsonari deituko zaio.

Ordezkapena urgentziaz egin beharra balego, edota 48 ordu baino lehen, zerrendako lehen pertsonari hiru aldiz deituko zaio (telefono finkora zein mugikorrera) eta mezu bat ere bidaliko zaio. Erantzungo ez balu, zerrendako hurrengoei deituko zaie, norbaitek onartu arte.

Soraluzeko Mesedeetako Andre Mariaren Egoitzako Patronatuak, oinarri hauen inguruan sor daitezkeen zalantzak argitu ahal izango ditu, bai eta behar diren neurriak eta erabakiak hartu ere.

Soraluze, 2016ko martxoaren XXa.

PRESIDENTEA



Iker Aldazabal Basauri

